

Miranda pasealekuaren inguruko partaidetza prozesuaren emaitzak partekatuko ditu Udalak herritarrekin

- Hilabete hauetan gunearen inguruko iritziak eta proposamenak bildu ditu Udalak erabiltzaile potentzialen artean
- Urriaren 8an emango dira ezagutzera partaidetza prozesuaren emaitzak

Andoainen, 24-10-01.- Miranda pasealekua, azken urteotan, Andoaingo herritarrentzako gunerik preziatuenetako bat bihurtu da. Pasealekua izateaz gain, berdegune zabalez osatuta dago, eta azken urteetan herritarrek erabiltzeko hainbat gune ere egon dira: haur-parkeak, pump-truck gunea, ur-parkea... Nolanahi ere, eremua gehiago aprobetxatzeko asmoz, Andoaingo Udalak pasealekuaren erabilerei eta aukerei buruzko hausnarketa-prozesu bati ekin zion maiatzean, diagnostiko bat osatzeko helburuarekin, hortik abiatuta eremu horretan etorkizuneko ildo estrategikoak ezarri ahal izateko.

Bada, prozesuaren emaitzak ezagutzeko unea iritsi da: datorren **asteartean, urriak 8, arratsaldeko 18:30ean**, Udalak bilera bat egingo du **Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan**. Bertan, prozesu honetan jasotako iritziak eta proposamenak ezagutaraziko dira.

Udalak parte-hartze prozesurako gunearen erabiltzaile potentzialen taldeak identifikatu zituen, eta kontaktuak egin zituen haien artean: adin handieneko bizilagunak, haurrak, nerabeak, gazteak, Etxeberrietako bizilagunak, txakurren jabeak eta 45 urtetik beherako gurasoak dituzten familiak. Galdetegi bat ere jarri zen martxan. Batzar ireki bat ere antolatu zen, iritziak biltzeko.

Elkarlanaren bidez, Andoaingo espazioen inguruan jolas- eta kirol-erabilerak zehaztu nahi ditu Udalak. Denok osatzen dugu Andoain eta guztioi dagokigu gure espazioak definitzeko aukera. Bide horretan jarraituko du Udalak datozen hilabeteetan.

